



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

Osoko bilkura:

Ainara Herce San Martín, presidentea

Julián Antonio Rodríguez Esquerdo, kidea

Jorge Aranguren Fernández, kidea

Noemí Angulo Garzaro, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), adierazitako kideak bertan direla, 2026ko urtarrilaren 29an egindako bileran, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartu du.



AURKIBIDEA:

I. AURREKARIAK	3
II. ERABAKITZEN DU	3
ERANSKINA: LEA/AVCren 2025-2028ko PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA	4



I. AURREKARIAK

- (1) Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeak LEA sortu zuen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita, nortasun juridiko propioarekin eta bere eginkizunak betetzeko jarduteko gaitasun osoarekin.
- (2) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sektore publikoko entitateek garatzen duten dirulaguntza-jarduera aldeztu aurretik planifikatu beharko da, plan estrategiko baten bidez. Plan horretan, honako hauek jasoko dira: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak, haren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.
- (3) Aurreikuspen horretan agindutakoa betetzeko, Lehiaren Euskal Kontseiluak LEAren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2025eko urtarrilaren 30ean.
- (4) Plan Estrategiko horretan jasotako dirulaguntzen artean, hirugarren dirulaguntza-lerroaren funtsari eutsiz, idazketa aldatu da eta, ondorioz, helburu estrategikoa berriz landu da. Gainera, ez zegoen kuantifikatuta hirugarren dirulaguntza-lerroaren aurrekontu-konpromisoa. Azkenik, aldatu egin dira lehen dirulaguntza-lerroko 2026rako, 2027rako eta 2028rako aurrekontu-konpromisoak, eta murriztu egin dira. Beraz, aldatu egin behar da.
- (5) Horregatik guztiatik, eta otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, LEKek honako hau

II. ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: LEA/AVCren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, zeina erabaki honen eranskin gisa gehitu baita.

BIGARRENA: Erabakia argitara eman dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, nolahi ere, LEAren webgunean: <https://www.competencia.euskadi.eus/>.

HIRUGARRENA: Plana gauzatzera bideratutako urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeek ezarritakora egokitu beharko dira.

**ERANSKINA: LEA/AVC-REN 2025-2028KO PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA**

Dirulaguntzen hirugarren lerroa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

3. Lehiaren arloko ikasketa amaierako lanetarako sariak

Deitutako sarien helburua izango da unibertsitate-titulazio ofizialetako ikasleek lehiaren defentsarekin lotutako gaiei buruzko ikasketen amaierako lana egin dezaten sustatzea.

Aldatu egiten da LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA ARDATZ ESTRATEGIKOAREN helburu estrategikoa, eta honela idatzita geratzen da:

Helburu estrategikoa
Unibertsitate-titulu ofizialetako ikasleek lehiaren defentsarekin lotutako gaiei buruzko ikasketen amaierako lana egin dezaten sustatzea.

Aldatu egiten dira dirulaguntzen lehen lerroko eta hirugarren lerroko aurrekontu-konpromisoak, eta honela idatzita geratzen dira:

Dirulaguntzen lehen lerroa:

Aurrekontu-konpromisoak		
	Urtekoa	Zenbatekoa (€)
4. kapitulua	2026	13.000
	2027	13.000
	2028	13.000

Dirulaguntzen hirugarren lerroa:

Aurrekontu-konpromisoak		
	Urtekoa	Zenbatekoa (€)
4. kapitulua	2026	2.000
	2027	2.000
	2028	2.000